

txokolatzeko gutziak
pasta ekologikoa
arrosa
polborriak edo teilak
madara almirabarrean
eskalibada
pikillo-saltsa
zainuri-estra lodiak
cebarra-bihotzak
pikillo-piper osoak
ozpin ekologikoa
melokotzia almirabarrean
ardo ekologikoa

50€

SASKI ZURIA



BELTZA EDO ZURIA?



SASKI BELTZA

50€

oliba-olio birjina
mahats-zikua
potriak
melokotzi-marmelada
arbondolak
borraja ekologikoa
pikillo-piper-mamia
zainuri-estra lodiak
arburu-bihotzak
pikillo-piper osoak
ozpin ekologikoa
melokotzia almirabarrean
ardo ekologikoa



URRIAK 24 - AZAROAK 8
Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

ZURI ESKER

HARTU SASKI BELTZA ALA ZURIA
(EDO BIAK) ETA EMAN NAFARROA
HEGOALDEKO EUSKALGINTZARI %25



Zergatik ez ditugu Tuteran gure haurrak euskaldun-
duko? Eta helduentzako euskarazko ikastaroren bat
antolatuko bagenu Tafallan? Ederki legoke Cascanten
euskaltzaleok biltzeko txoko bat izatea... Eta euskara
eguna ospatuko bagenu Sartagudan?

Orain hamarkada batzuk amets huts ziren haiek erreali-
tate dira gaur. Eraikin, material eta irakasle tituludunik
gabe eta borondate handiz abiatutako heziketa espe-
rientzietatik datoz Nafarroa hegoaldean euskararen-
tzako ezinbesteko diren ikastolak. Helduen euskaldun-
tze eskolak emateko auzolanean txukundutako lonja
haietatik datoz egungo euskaltegiak. Eta antzera ger-
tatu da euskara egunak edo olentzeroren etorrerak an-
tolatzen dituzten euskaltzaleen txoko edo elkarteekin.
Ez da magia kontua. Zuri esker bihurtu dira egia amets
haiek, auzolangile. Zure maitasunari esker. Zure gogoari
esker. Zure izerdiari esker.

Baina, hainbeste kostata erditutako proiektuok aurre-
ra egin dezaten, oraindik ere zure laguntza behar dute.
Haur zein helduen euskalduntzeak aurrera egin dezan,
ezinbestekoa da elkartasunaren bultzada. D eremuan
matrikulatutako haurrak gero eta gehiago izan daitezten
lanean jarraitu behar dugu. Are gehiago, euskara ikas-
ten ari diren haur zein heldu horiei guztiei euskaraz bizi
ahaz izateko aukerak, espazioak eskaini behar zaizkie.

Asko egin dugu, baina oraindik ere asko dago egiteko.

Heldu zaigu, beraz, berriro amesteko ordua. Euskararen
beharrizanetatik izan beharretara jauzi egitekoa. Zon-
alde zigortu hau lurralde euskaldun imajinatzekoa...
Amestu dezagun ikastola, euskaltegi-eta, oro har, eus-
karaz ikasteko egitasmoak ikasle betetzen direla. Bai-
na harago ere bagoazela. Amestu dezagun, etiketatari
eta web guneetan euskarari toki egin ostean, ekoizleek
pauso berriak ematen dituztela eta, adibidez, enpre-
setako langileak euskalduntzeko apustua egiten dute-
la. Amestu dezagun Lodosako arraun taldean gazteak
euskaraz dabiltzala; Tuteran euskarazko pilota-eskola
sortzen dugula; zonaldeko herri guztietan D eremuan
matrikulatutako haur taldeak osatzen direla... Amestu
dezagun Euskal Herri osoko hamaika musikari, antzer-
kigile, dantzari edota artistak bat egin eta Nafarroa he-
goalderako kultur agenda oparu bat antolatzen dutela.
Amestu dezagun.

Amets egitea gauza ederra da. Ederragoa ametsa egi-
tea. Baina, oraingoan ere, ez da posible izango zu gabe.
Ametsok zuri esker izango dira egia, ala ez dira izango.
Auzolanari esker izango dira, ala ez dira izango. Izan ere,
auzolanaren ispiluan zure islak ez du amaierarik. Auzo-
lanaren ispiluan zure ekarpena beste milaka lagunen
ekarpenarekin biderkatu daiteke, mugarik gabe.

ZER
TAR
AKC

Euskara ikasteko egitasmoen etor-
kizuna bermatzen jarraitzeko eta,
gainera, zonaldean euskara plazara
jalgitzeko ametsa egia
bihurtzen hasteko.

Ametsa zuri esker izango delako
egia, ala ez delako izango. Auzo-
lanari esker izango delako, ala ez
delako izango. Herriak herriari lagun-
du ezean, ez duelako inork egingo.

GRÂCE À VOUS

Grâce à votre soutien nous conti-
nuerons à améliorer la situation
économique critique que subissent
les projets pour l'apprentissage des
enfants et des adultes et le dévelo-
ppement de la langue basque au
sud de Nafarroa. Grâce à vous nous
commencerons à accomplir le rêve
de reprendre l'euskara dans la rue. Il
vous suffit de choisir entre les deux
paniers garnis de produits du sud de
Nafarroa (ou de prendre les deux).
25 % des bénéfices seront versés en
faveur de la langue basque.

GRACIAS A TI

Gracias a ti seguiremos ayu-
dando a aliviar la situación
económica extrema que sufren
los proyectos para la euskal-
dunización de niños y adultos
en el sur de Nafarroa. Gracias
a ti empezaremos a cumplir
el sueño de sacar el euskara a
la calle. Solo tienes que elegir
entre las dos cestas formadas
por productos del sur de Nafar-
roa (o quedarte con ambas). El
25% de lo recaudado será para
el euskara.

EGIN ZURE ESKAERA
AZAROAREN 8A BAINO LEHEN

Inprimaki honen bidez ala errigora.eus webgunean

SASKI BELTZ KOPURUA

SASKI ZURI KOPURUA

IZENA

ADIZENAK

HERRIA

E-MAILA

TELEFONUA

Donen Nafarroako almirabarre (Dn 23/2005) lege de-
gokian ezarritakoak dira, zure onarpena. Erreklamazio
liberatu baten sartzeak (Dn 2007/10) euskararen ikas-
teko eta eremuan zure laguntza (Dn 2007/10) er-
emateko auzolanaren bultzadarako. Baina ez dira erabiler-
erako erabilerak. Erabilerak zure laguntza (Dn 2007/10) er-
emateko auzolanaren bultzadarako. Baina ez dira erabiler-
erako erabilerak.

Donen az zure laguntza (Dn 2007/10) eremuko sub-erregio-
nari emateko. Baina ez dira erabilerak.

HERRI AMETSA IKASTOLA (Guardaplata bidea 28 20016- DONOSTIA - 943 393520)
herriam@ikastola.net www.herriametsa.eus



DIRU SARRERA EGITEKO KONTUA
KUTXABANK: ES97 2095 5092 01 1060157319